

## **Nafarroako Lehendakariaren Kabineteko zuzendaria**

### **Ainhoa Gastearena Arraiza**

Iruñean jaio zen 1974an. Ezkonduta dago eta bi seme ditu.

Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziatu zen Nafarroako Unibertsitatean (1997).

Lan-jarduera 1999. urtean hasi zuen enpresa pribatuan, argitalpen industriarekin eta komunikazioarekin lotuta dauden hainbat enpresatan, web edukiak lantzen eta liburuen diseinu eta maketazioa egiten, besteak beste.

2004an Nafarroa Bai koalizioarentzat lanean hasi zen urte hartako hauteskunde orokorretako kanpainaren prentsa arduradun gisa eta, hauteskundeen ostean, Uxue Barkosen laguntzaile gisa jarraitu zuen lanean Diputatuen Kongresuan, komunikazio lanak eta parlamentuko izapideak egiten eta bere agenda politiko eta informatiboa kudeatzen.

2008 eta 2011ko hauteskunde orokorren ostean kargua berretsi zuen eta bertan jarraitu zuen 2015eko ekaina bitarte. Nafarroako Parlamenturako foru hauteskundeen ondoren, Geroa Baiko parlamentu-taldean laguntzaile lanak egiten ibili zen Nafarroako Gobernura joan arte.

2015eko uztailean Nafarroako Lehendakariaren Kabineteko zuzendari izendatu dute.